# Asp

STUDENT TRAVEL & EXCHANGE PROGRAMS



## TUTORETZA I RLAN DAN _13-17 urte bitarteko gazteentzat

### irakaslel- 4 ikasle

ikastaro hau Bray inguruan egiten da, Dublinen hegoaldean 30 minututara gutxi gorabehera. Dublin tamaina ertaineko hiria da eta inguruko etxebizitza guneetatik sarbide erraza du. Hiri honek iragan kultural eta literario garrantzitsua du, gaur egun ere urte osoan zehar jarduera eta ekitaldi sorta zabala eskainiz. Hiri *hau* bere lorategi eta parka ederretatik ere ezagutzen da.

**r*Irigeles ikastaroa: irakasle 1 - *4*ikasle**

Ikastaroaz eta Irlandako egonaldiaz onura maximoa lortu nahi duten ikasleentzat egin dugu progama hau. Programa ikasleei ikastaroa talde txikietan (4 ikasle) egiteko aukera ematea die, maisu batekin eta giro informal batean, maisuaren etxean edo familia irlandar baten etxean.



Ikastaroan garrantzi berezia dute entzumenak eta mintzamenak: eztabaidak, elkarrizketak, diktaketak, entzumena lantzeko ariketak, eta abar. Eskolak astelehenetik ostegunera izaten dira, goiz eta arratsaldez (ordutegia 10.00etatik 16.30etara izaten da orokorrean). Atsedenaldi bat egiten da goiz erdialdean eta beste bat bazkaltzeko orduan.



Ikastaroak astero hizkuntza lantzeko 22 ordu ditu, gutxi gorabehera. Arratsaldeko saioak informalagoak dira, hauetan taldekoekin eta maisuarekin museoak, arte-galeriak eta beste toki historiko edo turistiko interesgarri batzuk bisitatzera Joan daitezke; edo jokoak, abestiak, bideoak, sukaldaritza, kirolak, eta abar egin ditzakete. Ekintza hauen helburua ikasleek hizkuntza ikastea eta praktikatzea da, baita kultura irlandarra ezagutzea ere.



Ikastaroa hasi baino lehen, ikasleek STEP-ek emandako maila-azterketa egin beharko dute hemen, taldeak programa hasi baino lehenago egin daltezen.

**i*Ostatua.**

Ikasleak Bray inguruko herrietan bizi diren familia irlandarrekin egongo dira. Ostatua logela partekatuan edo banakako logelan izan daiteke (libre dagoenaren arabera). Logela partekatua baldin bada, sexu bereko eta nazionalitate desberdineko ikasle batekin partekatuko da. Erdaraz hitz egiten duen ikasle bakar bat gongo da familia bakoitzean. Familiek mantenu osoko errejimena eskaintzen dute. Bazkaria ikasleek irakaslearen etxera edota txangoetara eramaten duten "packed-lunch" bat da.

Nahiz eta ahalegin handiak egin, beti ez da posible familia anfitrioiak irakaslearen etxetik hurbil bizitzea. Beraz, ikasle batzuek garraio publikoa erabili behar izango dute klaseetara joateko. Ikastaroaren barne sartzen da garraio publikoaren bonoa.

**I*Txaneoak:**



Astero txango bat egingo da eta normalean ostiraletan izango da.

Txangoak interes historiko edo turistikoa duten tokietara egingo dira, adibidez, Dublin, Howth eta Malahide (ekialdeko kostaldean), Glendalough edota Wicklow Gaol.

Bestalde, gure monitoreak organizazio irlandarrarekin batera larunbatetan Dublinera edota inguruko tokietara joateko irteerak prestatuko ditu.

***Monitorea:**

Taldeak monitorearekin batera bidaiatuko du eta monitore hau bertan egongo da ikasleekin batera bueltatu arte.

***Bidaia:**

Bidaia hegazkinez egingo da Bilbotik Dublinera.

Dublinera heltzean organizazio irlandarrak taldea jaso eta familiekin adosturiko topagunera eramango ditu.

| e*Ikastaro egunak: | STEP /Rodriguez Arias 23, 5² 5. Bilbao |
|---|---|
| Ekainaren 23tik uztailaren 14ra | Tel.: 94 416 13 88/Fax: 94 444 63 86 |
| LIztailaren 5etik 26ra | E-mail: step@steptravel.net |
| | Web: www.steptravel.net |